



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

“Arabako jaiak, etxez etxe”: Aldundiaren proposamena “azken asteotan erakutsitako komunitate espiritua” ohoratzeko

Kartela aurkeztu da, eta zenbait bideo grabatu dira; horrekin, herritarrak animatu nahi dira zaindariaren jaiak “errespetuz, sormenez eta etxean” ospa ditzan nahi duenak

Foru Aldundiak bat egingo du egun horietarako jarduerak prestatzen dituzten herritarren ekimenekin edo ekimen kolektiboekin, eta eskatu du sareetan #ArabakoJaiakEtxezEtxe kanpainaren barruan iragar daitezela

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 22a. Arabako Foru Aldundiak herritarrak animatu ditu San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren jaiak ospatzera egoerarekiko errespetua erakutsiz, balio dezaten bai Covid-19aren biktimak omentzeko bai aldarrikatzeko “bereziki azken asteotan erakutsitako komunitate espiritua”, #ArabakoJaiakEtxezEtxe kanpainaren barruan.

Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren hitzetan, “Gizarte garen aldetik sufritzen ari gara, baina elkartu ere egin gara, komunitatearekin lehendik geneukan lotura estutu egin dugu. Alde horretatik, —nabarmendu du— Aldundiak uste du Arabako jaiak ospatu behar ditugula, egoerarekiko errespetuz, biktimak oroitzeko modua izan dadin, eta, zoritxarraren aurka elkar hartuta, erakutsi dugun komunitate izaera hori omentzeko modua ere bai.”

Horiek horrela, Aldundiak aurtengo kartelaren berri zabaldu du gaur, zeina lehiaketa bat egin ondoren hautatu baitu. Lehiaketak oinarri berriak izan ditu, eta oinarriok “oso ondo hartu ditu diseinu grafikoaren eta ilustrazioaren sektoreak”, adierazi du del Valek. Naiara Errastik egin du aurtengo kartela.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Zenbait bideo ere prestatu dira, sare sozialetarako eta bideo horiek programazioa egiteko zabaldu nahi dituzten komunikabideentzat. Kultura arduradunak jakinarazi duenez, bideoetan diputatu nagusiaren hitzaldi instituzionala ikusteko aukera izango da, Arabako Ilusionisten Elkarteko mago batek parte hartuko du, Arabako sukaldari batek perretxikoak eta barraskiloak prestatuko ditu txoko batean eta bideo berezi bat ere izango da, pregoi birtuala, azken urteotan pregoilari izan direnen hitzak jasoko dituena, eta hitz horien bidez “beren etxeetatik animo mezua zabalduko dute, baikor izateko eta jai bitxi hauek bizitzeko”.

Horiekin guztiekin batera, beste bideo batzuk ere izango dira, Euskal Filmotekaren artxibokoak, gure jaiei buruzkoak, edo lurraldean (Eltziego, Bastida, Agurain edo Gasteiz) euskal musika tradizionalaren eta dantzaren arloko kultura eta sorkuntza sektoreak egindako beste batzuk. Bideo horiek guztiak eskatzen dituzten komunikabide guztiei banatuko zaizkie, eta ikusgai izango dira sare sozialetan, #ArabakoJaiakEtxezEtxe traolarekin, eta webgune honetan: <https://web.araba.eus/eu/san-prudentzio>

Eta, azkenik, Foru Aldundiak eskertzen ditu eta bat egiten du Araban sortu diren herri danborradak egiteko ekimenekin edo komunikabideen programazioarekin, bai eta filosofia horri jarraitzen dioten gainerako ekimen kolektibo zein banakakoekin ere. Horiek horrela, proposamen guztiak koordinatu ahal izateko, Aldundiak proposatu du *biral* egin daitezela *traol* ofizialaren bitartez, “hedapen handiagoa izan dezaten”.

Gainera, hilaren 28an, Zortziko tradizionalaren orduan, 09:00etan, ekitaldi instituzional gisa, bandera haga erdira igoko da, Covid-19aren biktimen omenez.

Foru arduradunak azaldu duenez, “Azken finean, hilaren 27ko arratsaldetik maiatzaren 1era bitartean San Prudentzio eta Estibalizko Andra Maria ohoratzerantz animatzen ditugu herritarrak. Nola edo hala, urtero bezalako jaiak izan ahalko dira, musika, dantza, perretxikoak, barraskiloak eta umore ona tarteko, baina orain artekoetatik oso bestelakoak ere izango dira, sormenaz baliatu beharko garelako, etxean, zoritxarrez gure artean ez daudenez asko gogoratu, baina aldi berean indar handia helaraziz birusaren aurka borrokan ari direnei. Borroka irabaztea lortzen dugunean, izango dugu denbora benetako bihurtzeko gaur egun elkarri ematen diogun eta denok behar dugun maitasun birtual hori”, esan du, amaitzeko.



2020ko kartela

Aurtengo kartelari dagokionez, nabarmentzekoa da aurtengo ediziorako oinarriak aldatu direla, Kulturaren Plan Estrategikotik eratorritako diagnostikoa eta gomendioak oinarritzat hartuta, diseinuaren eta ilustrazioaren arloko talde profesionalen eskakizunak betetzeko, “proiekturako deia” sistemaren bidez.

Eredu berri horren bidez, uztartu nahi izan dira aukera berdintasuna eta lehiaketetan ordaina emanez duintzea. Hasierako fasean, aukera berdintasuna babestu da, lanak aurkezteko aukera emanez bai agertuz doazen pertsona sortzaileei bai profesionali. Finalurreko fasean, foru administrazioak hautagai hautatuei eskatutako zerbitzuak duindu eta babestu nahi izan dira. Horretarako, ordain ekonomiko bat ezarri da fase horretan aurkeztutako lanentzat eta, beraz, lehenbizikoz, lana egiteko ardura izan duen finalista bakoitzak 300 euro jaso ditu, eta irabazleak 1.300 euro.

Sektoreak aldaketak ontzat jo dituela jakinarazi dio bai Kultura Sailari bai sare sozialetan eta bazkideen aldizkarietan. Hori aurkeztutako proiektuetan ere nabaritu da: 44 aurkeztu dira, askoz gehiago 2019an eta 2018an aurkeztutako 26ak eta 2017an aurkeztutako 30ak baino. Generoari dagokionez, 23 proiektu dira gizonenak, eta 21 emakumeenak.

Esan bezala, Naiara Errasti izan da irabazlea. Epaimahaiaren arabera, kartel irabazlean “jaiekin loturiko elementuak (Armentia, Estibaliz, erretreta) erabili dira modu berritzailean eta estereotipoetatik at. Jaiekin zerikusia duten irudiak ez dira bisualki oharkabean igarotzen. Berritzailea da bai kolorearen erabilera bai irudien erabilera, bi dimentsioko lan laua osatu baitu.”

Finalistak Silvia Guillén, Dani Fernández-Ferreiros Urraca, Ibon Sáenz de Olazagoitia eta Yolanda Isasi izan dira.

Eta honako hauek, epaimahaikideak: Arte eta Lanbide Eskolako kide bat, Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi Mailako Eskolako (ID+Arte) beste bat eta AFAko moldiztegiko teknikariak.